



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1999ko martxoaren 29an

26 ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru Lege Proposamenak:**

- San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).
- Foru Lege proposamena, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa. Osasun Batzordeak onetsitako irizpena (3. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak eta Mozioak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Radio Blanca SArI frekuentzia modulatuan emititzeko eman zitzaion administrazio-emakida berreskura dezan, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).
- Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laborantza transgenikoen nekazaritza-diagnostikoa urtero egin dezan. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsia (6. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Tutera eta Corella arteko errepidean golf zelai bat eraikitzeari buruzko galdera, Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak egin (7. or.).
- Eskola garraioari buruzko plana ez bidaltzeari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak egin (8. or.).
- Kontrapasarako 584 ehiza postu baimentzeari buruzko galdera. Osoko Bilkuran izapidatzea (8. or.).
- Bertizko basoko 100 pago, moztu ahal izateko, markatzeari buruzko galdera. Osoko Bilkuran izapidatzea (8. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

## **San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Osasun Batzordeak San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamenaren gainean eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proposamen hori 1998ko azaroaren 24ko 91 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz ez da emendakinik mantendu, ezta boto partikularrik egin ere.

Iruñean, 1999ko martxoaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **IRIZPENA**

#### **San Frantzisko Xabierkoa zentro psikogeriatrikoaren funtzionamendu araubideari buruzko Foru Lege proposamena**

Erreforma psikiatrikoaren aurreratzeak eta sendotzeak barne hartu behar dute adimen gaixoei ematen zaien gizarte- eta osasun-laguntza, alde batetik bermatuz laguntza psikiatrikoaren finantzaketa publikoa, unibertsaltasuna eta berdintasuna, eta bestetik gaixoei dagozkien gizarte eskubideak, haien behar objetiboen arabera, gizarte laguntza jasotzen duten pertsonak diren heinean. Baliabide materialak eta giza baliabideak modu ezin hobean aprobetxatu behar dira, Foru Komunitatearen gaur egungo lehentasun eta behar sozialei dagokienez, kontuan hartuz Nafarroako adimen osasunaren gaurko eredu komunitario eta integratzailea.

Bestaldetik, Nafarroako gizarte laguntzaren sistema, bere garapena eta heldutasunagatik, gai

da adimen gaixoen gizarte-beharrizanen aitorpean aurrera joateko, horiek zailtasunak dituztenean gizarte prestazioak lortzeko, Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legean, beste minusbaliotasunei onartzen zaizkienak.

**Artikulu bakarra.-** "San Frantzisko Xabierkoa" Zentro Psikogeriatrikoan emaniko osasun laguntza doakoa izanen da eta, beraz, ez zaio inongo tarifari lotuko.

**ARTIKULU BERRIA.** "San Frantzisko Xabierkoa" Zentro Psikogeriatrikoan eguneko zentro gisa nola egoiliarrendako ematen den laguntza, gizarte zerbitzutzat hartuko da eta, ondorioz, Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, arau-hauste eta zehapenen erantzeari buruzko azaroaren 13ko 9/1990 Foru Legean, eta maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuan aurreikusitakoari egokitu zaio.

**ARTIKULU BERRIA.** Gizarte prestazioaren xedea adimen gaixotasunetik datorren minusbaliotasuna izanen da, eta Nafarroako Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Legean aurreikusten diren laguntzen antzekoa izanen da.

#### **Xedapen indargabetzailea**

1. Indarrrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

#### **Azken xedapena**

Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa**

### *OSASUN BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA*

Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez, Osasun Batzordeak berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzko Foru Lege proposamenari buruz eman duen Irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da. Proposamen hori 1998ko azaroaren 24ko 91 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, zioen azalpenari eta 6 artikuluari mantendutako boto partikularrak, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentuko Taldeak aurkezturikoak, defendatzen ahalko dira:

Iruñean, 1999ko martxoaren 23an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteuguía

### **IRIZPENA**

#### **Foru Lege proposamena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zirugiako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio- eta jarduketaprograma arautzen duena**

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak osasunaren eremuan jarduteko ondoko printzipioak ezarri zituen: berdintasuna osasun sisteman sartzeko aipaturiko moduan; gizarte efizientzia; osasun baliabide publiko guztiak eta baliabide pribatu elkartu guztiak erabiltzea, itunaren tresnaz; ospitalez kanpoko osasun laguntza espezializaturako Erabilpen Publikoko Laguntza Sareko laguntzazko baliabideak erabiliko dira; Osasun Departamentuak Nafarroako Osasun Zerbitzuaren goi-zuzendaritza, kontrola eta zaintza burutuko ditu; ospitaleak modu deszentralizatuan kudeatuko dira; Erabilpen Publikoko Laguntza Sare bat ezarriko da, Nafarroako Osasun Zerbitzuarekin ituna egin ondoren; zentro eta laguntza zerbitzu pribatuak Erabilpen Publikoko Laguntza Sarean sartzeko itun berezia eginen da entitate edo erakunde bakoitzarekin.

Osasun prestazioaren eskakizunei erantzuteko epe egoki bat bermatzea da, erabiltzaileak gehien

baloratzen dituen alderdietako bat; osasun zerbitzuek modu egokian erantzuten ahal diete eta erantzun behar diete eskakizun horiei, eta horretarako komenigarria da hori legez arautzea, azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak aurreikusitako eskubideen esparrua osatuz.

Itxaron zerrendak izatea osasun sistema publikoen ezaugarrietako bat da, erabiltzaileek bereziki sentitzen dutena.

Halako desoreka bat dago osasun arloko eskarien eta zerbitzuen eskaintzaren artean; osasun publikoak berezko ditu desoreka horiek. Haien jatorria justizia sozialaren aplikazioan dago. Agerikoa da ez dela lortuko haiek desagertzea osasun sistema unibertsal honetan. Hori dela eta, beharrezkoa da behar diren irtenbideak bermatzea eta horiek onartzeko modukoak izatea arrazizko atzerapen tarte batekin.

Itxuspegi horretatik, itxaron zerrendak ez dira laguntza medikoa murrizteko mekanismo bat, baizik eta hura arrazionalizatzeko modu bat, efizientzia eta gizarte berdintasuna lortzeko bidean. Esan daiteke gehien itxaroten duten gaixoak, sendagileak hala adierazita, bizitza arriskuan jartzen ez duten patologiak, edo ondorio kaltegarriak ekarriko ez dutenak, dauzkaten gaixoak direla.

Hori esanda, egia da ere beharrezkoa dela teknikoki eta sozialki onargarriak diren atzerapenak ezarri behar direla, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak errespetatu behar dituen eta Nafarroako herritarrei bermatu behar zaizkien mugak ezarri.

Testuinguru horretan ulertu eta planteatu behar dira Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak burutu behar dituen jarduketak, laguntza kirurgiko programatua bermatzeko epe egoki batean. Horri gagozkiola, honakoa xedatu da.

**1. artikulua.-** Gaixoaren erantzukizuna duen osasun sareko sendagileak ebakuntza egiteko adierazpena jakinarazi ondoren, ebakuntza hori erregelamenduz ezarriko den epean egin beharko da. Epe horretan ebakuntza egiten ez bada, gaixoak aukera izanen du Nafarroako Erabilpen Publikoaren Sareko zentroetan edo Osasun Sistema Nazionalako itunpeko zentroetan laguntza jasotzeko.

**2. artikulua.-** (KENDUTA).

**3. artikulua.-** (KENDUTA).

**4. artikulua.-** (KENDUTA).

**5. artikulua.-** (KENDUTA).

**6. artikulua.-** (KENDUTA).

**ARTIKULU BERRIA.** Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, urtean behin, zirugiako itxaron zerrendei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa bat eginen du, ondoko jarraibideen arabera:

1. Oro har, gehienezko epe bat ezarriko da, hau da, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zentro, zerbitzu eta zirugiako espezialitate guztiei aplikatzen ahal izanzen zaiena.

2. Hala zerbitzuen eskaintza malgutu eta egoitzearen ikuspuntutik, nola eskariak erregulatzearen ikuspuntutik, behar diren jarduketak planteatu-ko ditu, ahalegin berezia eginez praktika

klinikoaren aldakortasunean eta prozedurek duten kostuaren/eraginkortasunaren ebaluazioan.

3. Lehentasuna emanen zaio titulartasun publiko zentro eta zerbitzuak erabiltzeari; halakorik ez bada, gaixoak itunpeko zentroetara bidaliko dira.

4. Burututako jarduketan eragina eta ezarritako epe-konpromisoen betetze maila ebaluatzea bideratuko duten jarraipen eta kontrol tresnak ezarriko dira.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren urteko txostenak zirugiako itxaron zerrendei eta lorturiko emaitzei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa zehatza bilduko du.

**Xedapen indargabetzailea** (KENDUTA)

**Azken xedapena**

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

---

**E saila:**  
**JABELDURAK ETA MOZIOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Radio Blanca SARi frekuentzia modulatuan emititzeko eman zitzaion administrazio-emakida berreskura dezan**

*«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA*

«Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Radio Blanca SARi frekuentzia modulatuan emititzeko eman zitzaion administrazio-emakida berreskura dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko martxoaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztaibada eta bozketa Herrilan eta Azpiegitura Batzordean burutzea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritako-arekin bat, Parlamentuko Taldeek eta Foru Parlamentarioek emendakinak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 1999ko martxoaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**MOZIOAREN EDUKIA**

"Ezker Abertzalea" Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak xedatutakoaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Herrilan eta Azpiegitura Batzordean eztabaida eta bozka dadin.

Parlamentu honek Nafarroako Gobernua premiatzen du erabaki eta berreskura dezan bere garaian Radio Blanca SARi frekuentzia modulatuan emititzeko eman zitzaion administrazio-ema-

kida, emakidaren klausulak ez dituelako bete, betiere inolako kalteordainik gabe, izan ere inolako inbertsiorik ez delako justifikatu eta ez delako izan inolako diru-galerarik.

Zioak:

1. Radio Blanca, SA, frekuentzia modulatuan emititzeko 1991ko administrazio emakida baten esleipen-hartzailea izan zen.

2. Entitate horrek ez ditu bete, argi eta garbi, emakidako klausulak; izan ere, ez du funtzionamenduan jarri irrati emisora hori entitatearen ize-nean, baizik eta Onda Cero katearekin kudeaketa bateraturako kontratu jakin baten bitartez.

3. Radio Blancako ordezkariak Parlamentuko Batzorde batean espreski eta argiro aitortu zue-nez eta horri buruz egungarietan argitaratu diren berri batzuei jarraituz, iraungi egin da Onda Cero katearekin kudeaketa bateraturako sinatu zen kontratua.

4. Radio Blanca, SAK ez du inolako kalteordainik jaso behar, Gobernuak administrazio-emakida erabaki eta berreskuratuta ere; izan ere ezin du justifikatu inolako inbertsiorik egin izana. Alderantziz, bere garaian emandako administrazio-emakidaren erabilera ikusi eta ondoriozta daiteke emakida horretatik etekin handiak lortu dituela batere dirurik arriskuan jarri gabe.

Iruñean, 1999ko martxoaren 22an

Foru Parlamentarioa: Pedro Romeo Lizarraga

## **Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laborantza transgenikoen nekazaritza-diagnostikoa urtero egin dezan**

### *NEKAZARITZA, ABELTZAINNTZA ETA MENDI BATZORDEAK ONETSIA*

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak, 1999ko martxoaren 16an egindako bilkuran, hurrengo ebazpena onetsi zuen: "Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laborantza transgenikoen nekazaritza-diagnostikoa urtero egin dezan". Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 17an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da laborantza transgenikoen nekazaritza-diagnostikoa urtero egin dezan**

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du nekazaritza-diagnosti-

koa egin dezan, urtero, Foru Komunitateko laneketa transgenikoei buruz. Hurrengoei bidaliko zaie diagnostikoa: Nafarroako Parlamentuari, eta Foru Komunitateko nekazaritza-antolamenduei, kontsumitzaileen antolamenduei eta antolamendu ekologistei.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, haren eskumenez baliatu eta eskueran dituen baliabide oro jar ditzan Nafarroan lantzen den gai transgeniko orok bete dezan Europar horri buruz jarri den arautegia, eta behar den ezaugarria eraman dezan.

3.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berri emateko kanpaina bat abiaraz dezan, hala nekazaritza-ekoizleentzako, nola kontsumitzaileentzako, gai transgenikoak ekoizteak eta kontsumitzeak dakartzan ondorioei buruz.

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Tutera eta Corella arteko errepidean golf zelai bat eraikitzeari buruzko galdera***JUAN CRUZ ALLI ARANGUREN FORU PARLAMENTARIO JAUNAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko martxoaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen Juan Cruz Alli Aranguren Foru Parlamentario jaunak Tutera eta Corella arteko errepidean golf zelai bat eraikitzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

**GALDERAREN EDUKIA**

Juan Cruz Alli Aranguren, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeari atxikitako Foru Parlamentarioak, Parlamentuko Erregelamenduaren 184. artikulua eta ondokoek xedatuaren babesean, ondoko galdera egin dio Nafarroako Gobernuari idatziz erantzun diezaiten:

Komunikabideen bitartez jakin ahal izan dugunez Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak aurreikusia du gutxienez 400 milioi pezetako inbertsioa egitea Tutera-Corella errepidean golf-zelai bat eraikitzeko. Instalazio horietako lanak hemendik hilabete batzutura hasiko dira.

Hori dela eta, jakin nahi da:

1. Kirol Instalazioetako Azpiegiturei buruzko zein planetan aurreikusita dago Corella eta Tutera artean golf-zelai bat eraikitzea?

2. Zein azterlan zehatz eta seriotan oinarritu da erabaki hori, alegia, hain "herrikoia" den kirol horretan aritzeko instalazio bat eraikitzeko erabakia?

3. Ba al dago Nafarroan golf federaziorik, Foru Komunitateaz beste inor hartzen ez duena? Federazio horretan edo dagokion Federazioan, Nafarroako zenbat herritarren lizentziak daude erregistratuta?

4. Zenbat udali eskaini zaie golf-zelaia jartzeko lurra uzteko aukera ematea?

5. Zein dira, Tuterako Udalean den UPNko industri gaietarako zinegotziaren arabera, proiektu horretarako interesa erakutsi duten hiru enpresak, jada Gobernuarekin eta Udalarekin hizketan aritu direnak?

6. Industri eta Turismo Departamentuko nor ari da negoziazio horiek burutzen eta zein egoeratan daude negoziazio horiek?

7. Nafarroako Erriberako (Tuterako Merindatea) zein udalek eskatu dituzte dirulaguntzak kirol instalazioetako obrak egiteko 1998 eta 1999 urtetan eta ez dituzte aldeko erantzuna jaso? Ondokoen zerrenda eskatzen da: udalak, kirol azpiegiturak, obren zenbatekoa eta eskatutako dirulaguntzak.

Iruñean, 1999ko martxoaren 18an

Foru Parlamentarioa: Juan Cruz Alli Aranguren

## **Eskola garraioari buruzko plana ez bidaltzeari buruzko galdera**

### *«EZKER ABERTZALEA» PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko martxoaren 23an egindako bilkuran, erabaki zuen «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak eskola garraioari buruzko plana ez bidaltzeari buruz egindako galderaren biderapena onestea. Galdegileak hitzezko erantzuna eskatu du, Osoko Bilkuran emanen zaiona.

Erabaki hori betez, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1999ko martxoaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **GALDERAREN EDUKIA**

“Ezker Abertzalea” Parlamentuko Taldeak, Biltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du Osoko Bilkuran ahoz erantzun dadin

1. Zergatik ez da Parlamentu honetan aurkeztu "Eskola Garraioari buruzko Plana", kontuan harturik Hezkuntza eta Kultura Batzordeak 1998ko urriaren 27an onetsi zuela Hezkuntza eta Kultura Departamentua premiatzea hura landu eta presta zezan?

Iruñean, 1999ko martxoaren 22an

Foru Parlamentarioa: Pedro Romeo Lizarraga

## **Kontrapasarako 584 ehiza postu baimentzeari buruzko galdera**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko martxoaren 23an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Kontrapasarako 584 ehiza postu baimentzeari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (24 zk.ko NPAO,

1999ko martxoaren 23koa), hurrengo Osoko Bilkura batean izapidatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko martxoaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

## **Bertizko basoko 100 pago, moztu ahal izateko, markatzeari buruzko galdera**

### *OSOKO BILKURAN IZAPIDATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1999ko martxoaren 23an egindako bilkuran, hurrengo Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Bertizko basoko 100 pago, moztu ahal izateko, markatzeari buruzko galdera, «Ezker Abertzalea» Parlamentuko Taldeak aurkeztua (24 zk.ko

NPAO, 1999ko martxoaren 23koa), hurrengo Osoko Bilkura batean izapidatzea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1999ko martxoaren 24an

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía